

IRUTXULO
HITZA

ASTE
NAGUSIA

ASTE
NAGUSIA
2023

W23





ehbildu

ondo pasa jaietan,
gozatu, bizi, zaindu Donostia!



ALTZARIAK
BARNE DISEINUA

www.apal.eus

Ametzagaña 7 · Donostia
943 320400 · info@apal.eus

Denontzako Aste Nagusia

Zer plan duzu Aste Nagusirako? Donostia abordatzeko txalupa goiz-goizetik pres-tatzen duzunetakoa zara? Sagueseko kontzertuetan dena ematen dutenetakoa? Ibiltzen al zara sukaldaritza txapelketetan? Edo gurasoak etxean utzita, Pasealeku Berriko atrakzioetara joaten denetakoa zara?

Aste osoan zehar «pare bat egunez soilik» aterako dela dioena al zara, azkenean zortzi gaueetatik zazpitan ateratzen amaitzeko? Dantzatzea gustatzen zaizu, eta hor al zabilta, txistulari, elektrotxaranga, batukada, txaranga eta topatzen duzun musika guztien atzetik dantzan?

Agian zure gogokoena da suen osteko zenezuzkoaren adrenalina? Edo kirolari amorratua zu, eta 3x3 txapelketa, boleibol txapelketa eta Igeldoko Harriaren erakustaldia dira

zure gogokoena? Ondorengo garagardoak justifikatzeko aitzakia?

Edo oraindik ez duzu zure tokia aurkitu? Etxean geratzen zara, garestiak iruditzen zaizkizulako herri bazkari eta poteoak? Kontzertuak gustatzen ez zaizkizulako, edo bertan lekurik ez duzulako, konformatzen zara su artifizialekin? Eta gainera kaskarina deitzen dizute horregatik? Akaso erasoez, eta erasotzaileez, eta erasotzaileen lagunez eta euren aitzakiez kokoteraino zaudelako egiten duzu ihes.

Denetarik dugu gure egitarauetan, baina ez dira denontzako. Eta lekurik ez duenak, asmatu behar. Jaiak izan daitezen geure komunitateak saretzeko eta osatzeko bide bat, kanpoan uzten ditugunak aintzat hartuz. Bizitza nahiko gogorra delako hemendik kanpo.

H IRUTXULOKO
HITZA

DONOSTIAKO HEDABIDEAK E.M.
Ametzagaña, 19, behea
20012 DONOSTIA
Tel: 943-46 72 36

Argitalpen data: 2023ko abuztua.

Lege gordailua: SS-0226/05

Testuak: Erredakzioa.

Argazkiak: Joseba Parron San Sebastian,
Donostiako Piratak eta Irutxuloko Hitza.

Diseinua: Oier Arribas Ciria.

Azaleko diseinua: Unai Gaztelumendi Arandia.

Publizitatea: Aizpea Aizpurua Arroio.

Irutxulo
.hitza
.eus

ASTE NAGUSIA 2023

Udala





«Jendeari jakin-mina elikatzen diogu»

Hirian Urumearen presentzia aldarrikatzeko asmoz, Unai Elizasu Lertxundik duela hamaika urte sortu zuen Arrauning elkarteak. Iaz, egitarau propio bat antolatu zuten lehenengoz Aste Nagusian, eta aurten berriro antolatu dute. Jarduera guztiak doakoak izango dira, baina izena eman beharko da.

Udalarekin elkarlanean, egitarau berezia prestatu duzue Aste Nagusirako. Zertan datza?



Lehengo urtean lehen aldiz hasi ginen elkarlanean gauzak eskaintzen, eta aurten iazko arrakastari segida

emango diogu. Bisita gidatuak izango dira, kanoatan. Jendea kanoatan ibili ahalko da. Ni joaten naiz beraiekin eta ibaia erakusten diet ibilbidean zehar. Aurtengo berritasuna pedalo ontzietan ibiltzea izango da. Duela hilabete batzuk ekarri genituen, eta bi egunetan egongo dira. Garai batean Ondarretan egiten zen herri pedalo txapelketa berreskuratuko dugu, baina Urumean egingo dugu. Beste egun batean pedalo karrusel bat proposatuko dugu. Bigarren egun horretan ordu laurdeneko buelta bat emateko aukera izango du jendeak.

Aurtengo beste berritasun bat lekua izango da: iaz ekintza guztiak Jose Antonio Agirre zubitik hasten genituen, eta aurten Loiolako gure lokaletik abiatuko gara

Ondo pasa jaiak!
Oiartzun



● Gozotegia: Ijentea, 2 · Tel.: 943-42 62 09 ● Lantegia: Jai Alai, 6 · Tel.: 943-29 09 07
 ● www.pasteleriaoiartzun.com ● obrador@pasteleriaoiartzun.com  



[Latsarien plaza]. Horrela, Aste Nagusia ere pixka bat periferiara ateratzen da.

Iaz ere antolatu zenuten antzeko zerbait, ezta?

Nire aspaldiko borroka da Urumeak presentzia izan dezala Donostian, eta iaz aukera eman zidaten presentzia hori izan zezan Aste Nagusiaren barruan. Lau irteera gidatu eskaini genituen, non Erreka Mariren antzerki moduko bat egiten genuen, eta segituan saldu ziren sarrera guztiak. Arrakasta handia izan zuen.

Beraz, honen guztiaren helburua Urumeari berari merezi duen balioa ematea da.

Nire helburua beti da jendeak ibai bat dagoela ikustea, eta, batik bat, fokua jartzen dut donostiarrengan, gipuz-

koarrengan, euskal herritarrengan... Jende askok uste du turismo enpresa bat naizela, eta horren kontra ez nago. Ez dut hori batere elikatu nahi.

Nahi dut jendeak ikusi dezala, ezagutu dezala beraien ibaia zein den. Helburu horrekin askotariko ateak jotzen dituzu, eta Aste Nagusian egiten diren programa horretan sartzeko aukera zegoenez, aukera probestu nuen.

Egitasmoari ‘Urumearen berreskuratzea’ deitu diozue.

Azkenean, hori da Arrauningen helburua, Urumea izan zena berreskuratzea. Historikoki, Urumea aisialdi gune bat izan da. Ez dut esango hori bera berreskuratzea denik nire helburua, ez baitut uste historikoki zen horretara iritsiko garenik. Izan ere, hemen baziren milaka eta milaka ontzi, ibaian jendeak aisialdiaz gozatzen zuen, eta nik ez ditut milaka ontzi ekarriko; baina jendeak ikus dezala badugula ibai bat, ibai honek historia handia duela eta ibai honetaz gozatu dezakegula.

Donostiarrek Urumearekin zer lotura dutela iruditzen zaizu?

Ez dute loturarik. Donostiarrek ez dakite Urumea non jaiotzen den ere! Badakite non bukatzen den, baina non jaiotzen den ez; ez dakite Urumea izena nondik datorren... Egia da Donostia Urumea bazterretik ari dela handitzen: Loiolako Erribera, Txomin, kuartelak militarrek joaten direnean... Badakite ibai bat dagoela, baina ez besterik. Eta hemen Euskal Herriko baserri zaharrenetakoa dauzkagu, zubi historikoak... Jendea harrিতuta gertzen da hori kontatzen duzunean.

Iruditzen zaizu zure lanarekin Urumeak presentzia irabazi duela?

Sentsazioa daukat lata handia ematen dudala, baina gero konturatzen naiz ezetz. Hamaika urte daramatzat ibaian, eta batzuk ez dakite nabilenik ere, baina jendea Arrauning hitza gero eta ezagunagoa egiten zaio. Ez dut esango erreferente naizenik, baina ibaiaren inguruan norbaitek galderarik badu nigana jotzen du, eta horrek



ITSASO MIKATZA Jesús Mansé

Olioz sortutako Euskal Kostaldearen paisaiak

Irailaren 9ra arte - Aste Nagusian itxita (22an irekitzen da)

Iñigo Kalea, 4, Parte Zaharra



poza ematen du. Egia da nire iritzia dela, eta ez naizela ez hirigilea, ez arkitektoa, ez ezer, baina ibaia ezagutzen dut, izango naizelako une honetan ibaiari begira gehien dagoena, eta alde horretatik bai edukiko dudala iritzi onartuago bat.

Nondik dator kizu Urumearekiko atxikimendua?

Gaztetan Ur Kirolakekin hasi nintzen arraunean, baina ez neukan Urumearekiko inolako atxikimendurik.

Arrauning proiektuarekin hasi nintzenean, Urumeari begiratzen hasi nintzen. Niretzat, hasiera batean, Urumea aisialdi leku bat zen, pira-guan ibiltzeko, demagun; baina historia irakurtzen hasten zarenean, konturatzeko zara hori baino askoz gehiago dela. Lanetik etorri zait jakin-min hori, eta jakin-minak jantzi du nire lana. Hau ez da Igeldoko suitzar mendia, honen atzean istorio asko

daude, eta konturatzeko zara jendearekin joaten zarenean eta jendeari istorio horiek guztiak kontatzen ari zarenean, lortzen duzula jendeak lekuarekiko halako atxikimendu bat sortzea, jendeak esatea, 'hau nire hiriko historia ezagutzea da, eta lehen ez nekien'. Eta nik ere bide honetan asko ikasi dut, aldiro ari zara ikertzen eta ikasten.

Etortzen den jendea jakin-minez dator edo aisialdiarekin gozatzen?

Nik uste dut jakin-min hori elikatu egiten diogula. Inor ez da Urumea etortzen bertako historia ezagutu nahi duelako. Jendea hona etortzen da Urumea bera ezagutu nahi duelako, Google Mapeko ikuspegitik harago, esan nahi dut. Jende askok nabarmentzen du zein polita den ibaiko beheko partea, baina nik beti esaten diet are politagoa dela goian: behean zubiak eta murrak besterik ez daude! Politia da, ez dut ukatuko, baina gora

zoazenean, Txomineko basoan barrena, Uba inguruan... bertan gauza harrigarriak dauzkagu.

Kirol ontzi batzuk erabiltzen ditut, baina ez da kirola egiten. Hona etortzen dena paseatzera dator. Inork ez du bidegorrian bizikleta hartzen kirola egiteko, bidegorritik lasai joateko baizik, edo Kontxara paseatzera joaten da jendea. Nik gauza bera egiten dut, baina Urumean barna.

Aste Nagusia momentu egokia da Arrauning-ek eskaintzen duen hori hirira zabaltzeko, ezta?

Bai. Aste Nagusia erakuslehi handi bat da niretzat, programazio baten barruan sartzen naizelako eta jende askok programa horren barruan antolatzen dituelako asteko planak.

Nola hartu daiteke parte jardueretan?

Aste Nagusiko webgunean jarduera bakoitza egongo da, eta bertan parte hartu nahi duenak izena eman beharko du. Gainera, jarduera guztiak doakoak izango dira.

Zerbait gehiago gehitu nahi duzu?

Nire borroka bakarra da IRUTXULOKO HITZA-ko irakurle denek pasa beharko luketela behingoz ibaitik: behin etorriko balitzaizkit, nik uste dut horrekin bizi nintekeela. Donostiako aisialdi enpresa bat naiz, eta titular horrekin ja donostiar asko kanpo sentitzen dira. Hori da nire borroka. Nik nahi dut hemengo auzo hau hona etortzea [elkarrizketa Latsarien plazan egin dugu]. Esaten dizut: hemengo denak etortzearekin, bizi naiz. Bisiten %40 euskaraz egiten dut, eta komunikazio guztia euskaraz egiten dut. Horri ematen diot nik balioa, eta horrek ezberdintzen nau besteengandik.

*«Hau ez da
Igeldoko suitzar
mendia, honen atzean
istorio asko daude»*



Abuztuak 31 kalea, 23
Parte Zaharra, Donostia
943-42 63 62
www.restaurantegandarias.com



Ondo pasa jaiak!



ILAZKI

EUSKALTEGIA

Ondo pasa
jaiak!

HABEK diruz lagundua

HABE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus

GROSEKO INDARRA SURF ESKOLA TALDEA

IKASI, GOZATU
BIZI, ELKARBANATU

 695-75 44 71

 grosekoindarra.com

Ondo pasa jaietan!



Udalaren egitaraua



ABUZTUAK 12, LARUNBATA

EGUN OSOAN ZEHAZ

Zurriola Street Food Kursaaleko Erizainen plazan.

08:00–19:00: Aste Nagusiko XVIII. hondartza boleibol txapelketa Zurriolako hondartzan.

11:30–23:00: Euskal sagardoa, jan-edan gunea Gipuzkoa plazan.

GOIZEAN

Euskal Herriko nekazal produktuen X. azoka berezia Loiola kalean.

12:00–13:30

Trikitilariak San Martin merkatuan.

16:00ETAN

Aste Nagusiko XXVIII. esku pilota txapelketa: finalurrekoak Trinitate plazan.

18:00ETAN

Erraldoiak eta buruhandiak Erdialdean eta Parte Zaharrear. Irteera Urdaneta kaletik.

18:15EAN

Goazen kanoikadara! Irteera Trinitate plazatik.

18:25EAN

Kanoikadaren erritmoan! Taupada eta Joselontxos taldeekin.

19:00ETAN

Festa hasierako kanoikada Alderdi Ederren.

Joselontxos txaranga Parte Zaharrear. Taupada batukada Boulevardean eta Parte Zaharrear.

19:05–22:30

II. Dantz Point Aste Nagusia, DJ-ak Urgull mendiko Santiago baterian.

19:20EAN

Gazte Nagusi Holi Fest, Oihan Vega eta Lorea Intxausti Boulevardean.

20:00ETAN

Musika Hamabostaldia. Musika garaikideko zikloa. Noelia Rodiles, Elena Rey & Jorge Montes, Kursaaleko erabilera anitzeko aretoetan.

20:30EAN

XLVI. txistulari alardea Konstituzio plazan.

20:30–22:00

Artie Escolar DJ–a Kursaaleko Erizainen plazan.

22:45EAN

Su artifizialen nazioarteko 58. lehiaketa Kontxako badian. Fully Fused Fireworks (Erresuma Batua).

23:30EAN

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani, Boulevard.

23:30–03:30

DJ gaua Kursaaleko Erizainen plazan:

23:30ean Candi DJ–a

01:00etan Oihan Vega

23:30EAN

Cafe Irlandes orkestra, dantzaldia Easo plazan.

Donostiako musika eskolako Big Band Boulevardeko kioskoan.

23:45EAN

En Tol Sarmientoren kontzertua Saguesen.



FISIOTERAPIA

EGFISIOS

ERREHABILITAZIOA REHABILITACIÓN

Ibon Etxeberria



Malen Alzuaz



Leire Leonete



Errehabilitazio eta fisioterapia kontsultategia: 943-46 14 56 - Marina, 4, behea, 20007 Donostia

ABUZTUAK 13, IGANDEA

EGUN OSOAN ZEHAR

Zurriola Street Food Kursaaleko Erizainen plazan.

11:00-14:00/17:00-21:30:

Eskulangintza azoka Gabiltza artisau elkartearen eskutik, Boulevardean.

11:30-23:00: Euskal sagardoa, jan-edan gunea Gipuzkoa plazan.

GOIZEAN

Euskal Herriko nekazal produktuen X. azoka berezia Loiola kalean.

08:00-19:00

Aste Nagusiko XVIII. hondartza boleibol txapelketa Zurriolako hondartzan.

11:00-14:00/17:00-21:30

Maduixa Gorria tailerraren eskutik: Latxarekin sorkuntza (8 urtetik gora) Boulevardean.

11:30-14:30/15:30-20:30

Puzgarriak Katalunia plazan.

12:00ETAN

Euskaldantza Muxikoak Boulevardeko kioskoan. Musika: Jeiki Hadi Taldea.

12:00ETAN

Bisita gidatuak kanoetan Urumea ibaian. Plaza mugatuak, izen-emateak online.

12:00ETAN

Hamabostaldia. Organo Zikloa. Joonho Park Iesu elizan (Loiolako Erriberak).

12:00-13:30

Trikitilariak San Martin merkatuan.

13:00-14:30

Two Rubias DJ-ak Kursaaleko Erizainen plazan.

14:00-17:00

Itsas hondoa garbitzea eta urpekaritza-bataioak Nautikoko terrazan.

16:00ETAN

Aste Nagusiko XXVIII. esku pilota txapelketa: finalurrekoak Trinitate plazan.

17:30ETAN

Zaldi lasterketak: Hotel Maria Cristina saria, Donostiako hipodromoan.

18:00ETAN

Buruhandiak eta erraldoiak Zurriola pasealekuan eta Gros auzoan. Abuztuaren 31 kaletik abiatuko dira.

18:30ETAN

Bebes de la Bulla txaranga Parte Zaharrean eta Erdi Aldean. Antigua Band txaranga Sagües eta Gros auzoan.

19:30ETAN

Haize Berriak Sakanako musika banda (Nafarroa) Boulevardeko kioskoan.

20:00ETAN

Gero Axular dantza taldea, folklorea Konstituzio plazan.

20:30ETAN

Musika Hamabostaldia. Ganbera Musika Zikloa. Francisco Fernandez-Rueda, Andoni Mercero, Susana Garcia de Salazar & Trio Nacedo San Telmo museoan.

20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a Kursaaleko Erizainen plazan.

20:45ETAN

Su Artifizialen Nazioarteko 58. lehiaketa Kontxako badian. Pirotecnia Zaragozana (Zaragoza).

23:30ETAN

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Boulevard. Rally de Luxe orkestra, dantzaldia Easo plazan. Gora Herria taldea, erromeria Boulevardeko kioskoan.

23:30-02:30

Kursaal gune zabala. DJ GAUA Kursaleko Erizainen plazan. **23:30** Lea DJ-a **01:00** Tintz DJ-a

23:45ETAN

Sofia Ellar, pop musika Saguesen.



ARROPA ETA DEKORAZIO NAUTIKOA

Ondo pasa jaiak!



ENBATA

Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA | Tel./Faxa: 943-42 47 97
enbatadenda@gmail.com | www.enbata.eus



Antigua
AUTOESKOLA

Teorikoa euskaraz ere

Ondo pasa jaiak!

Tolosa hiribidea, 15 (sarrera Antonio Arzak kaletik) · 943-10 60 94

ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

EGUN OSOAN ZECHAR

Zurriola Street Food Kurasaaleko Erizainen plazan.

11:00–14:00/17:00–21:30:

Eskulangintza azoka Gabiltza artisau elkartearen eskutik, Boulevardean.

11:30–23:00: Euskal sagardoa, jan-edan gunea Gipuzkoa plazan.

GOIZEAN

Euskal Herriko nekazal produktuen X. azoka berezia Loiola kalean.

09:30EAN

Abordatzera!

Baltsen muntaketa portuan.

11:00–14:00/17:00–21:30

Maduixa Gorria tailerraren eskutik: Fieltro tailerra (0–99) Boulevardean.

12:00ETAN

Aquariumeko Itsas Film festibala. 'Cimasub' film laburrak. Sarrera doan, eserlekuak bete arte.

12:00–13:30

Trikitalariak San Martin merkatuan.

12:30EAN

Bertsolariak Easo plazan.

Parte-hartzaileak: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Alaia Martin eta Manex Mujika.

Gai-jartzailea: Ander Aranburu.

13:00–14:30

Two Rubias DJ-ak Kurasaaleko Erizainen plazan.

15:30–20:30

Puzgarriak Katalunia plazan (Gros).

16:00–20:00

Uretako txirrista erraldoia Kurasaaleko Zurriola terrazatik.

17:00ETAN

Abordatzera! Portutik irten eta Kontxako hondartzan lehorreratu.

18:00ETAN

Erraldoiak eta buruhandiak Amara auzoan. Loiolako Erriberatik abiatuko dira.

18:30EAN

Deiadar txaranga Kontxa pasealekutik. Gauerdiko txaranga Erdialdean eta Parte Zaharrean.

19:30EAN

'Ñam Ñam', antzerkia Katalunia plazan (Gros). Harmonie Bayonnaise musika banda Boulevardeko kioskoan. Salbe Nagusia, Koruko Andra Mariaren Basilikan, Donostiako orfeoiaekin.

20:00ETAN

Goizaldi dantza taldea, folklorea Konstituzio plazan.

20:30EAN

Musika Hamabostaldia. Organo Zikloa David Cassan San Bizente elizan (Alde Zaharra).

20:30–22:00

Artie Escolar DJ-a Kurasaaleko Erizainen plazan.

22:45EAN

Su artifizialen nazioarteko 58. lehiaketa Kontxako badian. Caffero Event Fireworks (Herbehereak).

23:30EAN

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani, Boulevard.

23:30–03:30

Kurasaal gunea zabala. DJ GAUA Kurasaaleko Erizainen plazan. **23:30** Maria Lopez DJ-a **01:00** Mr Kul DJ-a

23:30EAN

Agirren orkestra, dantzaldia Easo plazan. Jalisciense nazioarteko mariachia Boulevardeko kioskoan.

23:45EAN

Gari & Maldanbera pop-rock musika Saguesen.

Festara!

–Amara:

Aitzol parkean (Usandizaga institutua–Amara): Goratzar abesbatza.

–Antigua:

Alfontso XIII plazan: Luberri abesbatza.

–Parte Zaharra:

Koruko Ama Birjinaren plazan (Gaztelubide Elkartearen parean): Gaztelubideko Abesbatza.

harteles

Antenak. Eraikinetan instalazio digitalak.
Mantenua eta erreparazioak.



Antenak, LTD
eta satellite



Atezain eta bideo
atezain digitalak



Bideo-zaintza

Ondo pasa jaiak!

☎ 943-28 77 42

📍 Zabaleta, 44, 20002 Donostia



ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

EGUN OSOAN ZEHAZ

Zurriola Street Food Kursaaletxo Erizainen plazan.

11:00–14:00/17:00–21:30:

Eskulangintza azoka Gabilta artisau elkartearen eskutik, Boulevardean.

11:30–23:00: Euskal sagardoa, jan-edan gunea Gipuzkoa plazan.

GOIZEAN

Euskal Herriko nekazal produktuen X. azoka berezia Loiola kalean.

10:30–20:00

Arte azoka Boulevardean.

11:00–14:00 / 17:00–19:00

Puzgarriak Matia kalean (Antigua). Haur jolasak eta pedaletako kart-ak Matia kalean (Antigua).

11:00–14:00 / 16:00–18:00

Egurrezko joku erraldoiak Katalunia plazan (Gros).

11:00–14:00/17:00–21:30

Hazi ta Hezi tailerraren eskutik: Kuxinak (helduentzako) / Oihalezko panpinak (umeentzako) Gaskonia plazan (Antigua).

11:00ETAN

Aste Nagusiko VI. legatza saltsa berdean lehiaketa Matia kalean (Antigua). Trikitilariek girotua.

11:00ETAN

Paseo Berriko LIII. igerialdia
11:00: haurrak Irteera kaiko kai-muturretik.

12:00: gainerako kategoriak.

Irteera Zurriolako hondartzatik. Bizikleta eta patinetan jaigiro martxa. Irteera eta helmuga Katalunia plazan (Gros).

11:30–14:00 / 16:00–20:00

Uretako txirrista erraldoia Kursaaletxo Zurriola terrazatik.

11:30–14:30/15:30–20:30

Puzgarriak Katalunia plazan (Gros).

12:00ETAN

Aquariumeko Itsas Film festibala. 'Itsasoak Pizten Gaitu'. Arkaitz Añorgako dantzariak, ezpata dantza eta brokel dantza, folklorea Parte Zaharreko kaleetan. Irteera: portutik. 12:30ean emanaldia Konstituzio plazan.

13:00–14:30

Two Rubias DJ-ak Kursaaletxo Erizainen plazan.

16:30ETAN

V. bandera Aste Nagusia, estropada, emakumezkoen modalitatea. Irteera eta helmuga: Mundaiz zubia.

17:30ETAN

Zaldi lasterketa urrezko kopa, Donostiako hipodromoan.

18:00ETAN

Erraldoiak eta buruhandiak, Erdialdean. Larramendi kaletik abiatuko dira.

18:30ETAN

Joselontxos txaranga Gros auzoan. Tximeletak txaranga Antigua auzoan.

19:30ETAN

'Mute', zirku-antzerkia Katalunia plazan (Gros). Urrezko Kopa. Aizkolariak Trinitate plazan. Virgen del Rosario musika elkarte (Albacete) Boulevardeko kioskoan.

20:00ETAN

La Ribera Canta, jotak Konstituzio plazan.

20:30–22:00

Artie Escolar DJ-a Kursaaletxo Erizainen plazan.

22:45ETAN

Su artifizialen nazioarteko 58. Lehiaketa Kontxako badian. Pirotecnia Tamarit (Valentzia).

23:30ETAN

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani, Boulevard. Laket, erromeria Aitzol parkean (Usandizaga institutua-Amara). Lindy Hop Donostia, dantza ikuskizuna Alfontso XIII plaza (Antigua). Azabache orkestra, dantzaldia Easo plazan. Eclectic Band, folk zelta musika Boulevardeko kioskoan.

23:30–02:30

Kursaal gune zabala. DJ gaua Kursaaletxo Erizainen plazan.

23:30 Txolas DJ-a

01:00 Asier Burguete DJ-a

23:45ETAN

El Drogas, rock musika Saguesen.

ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA**EGUN OSOAN ZEHAR**

Zurriola Street Food Kursaaaleko Erizainen plazan.

11:00-14:00/17:00-21:30:

Eskulangintza azoka Gabilta artisau elkartearen eskutik, Boulevardean.

11:00ETAN

Nordic Walking zeharkaldia. Irteera eta helmuga Katalunia plazan (Gros).

11:00-14:00/17:00-21:30

Arratibel tailerraren eskutik: Egunkariekin egindako eguzkiloreak (umeentzat) Katalunia plazan (Gros).

12:00ETAN

Aquariumeko Itsas Film festibala. 'Urpeko ondarea. Museo bat itsaspean'. Sarrera doan, eserlekuak bete arte.

12:30EAN

Bertsolariak Easo plazan. Parte-hartzaileak: Asier Azpiroz 'Azpi', Nerea Ibarzabal, Unai Gaztelumendi eta Miren Artetxe. Gai-jartzailea: Unai Elizasu.

13:00-14:30

Two Rubias DJ-ak Kursaaaleko Erizainen plazan.

15:30-20:30

Puzgarriak Katalunia plazan (Gros).

16:00-18:00

Minigolfa eta joku gehiago Katalunia plazan (Gros).

16:00ETAN

Bisita gidatuak kanoetan Urumea ibaian. Plaza mugatuak, izen-emateak online.

17:30EAN

Bizikleta festa. Haurrentzako jaiak Boulevardean.

18:00ETAN

Aste Nagusiko VI. paella lehiaketa Katalunia plazan (Gros). Trikitilariak girotua. Erraldoiak eta buruhandiak, Kontxa pasealekutik Antiguara (iritsiera 19:30/20:00). Abuztuaren 31 kaletik abiatuko dira.

18:30EAN

Pasai txaranga Antigua auzoan. Incansables txaranga Erdialdetik eta Alde Zaharretik.

19:00ETAN

XXVIII. Egiako nazioarteko eskubaloi txapelketa. Emakumezkoa: Super Amara Bera-Bera - Gurpea Beti Onak Azparren Gestion, Egiako kiroldegian. 75 Antiguako pilota txapelketa. Binaka gizonezkoa promesa eta elite mailak, Antiguako frontoian.

19:30EAN

Irun Hiria musika banda (Gipuzkoa) Boulevardeko kioskoan.

19:30-21:00

Sardina jana Easo plazan.

20:00ETAN

Musika Hamabostaldia. Grigory Sokolov pianista Kursaaaleko auditorioan. Allur dantza taldea, folklorea Konstituzio plazan.

20:30EAN

Musika Hamabostaldia. Ganbera Musika Zikloa. Cuarteto Breton San Telmo museoan.

20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a Kursaaaleko Erizainen plazan.

22:45EAN

Su artifizialen nazioarteko 58. lehiaketa Kontxako badian. Pirotecnia Xaraiva (Ourense).

23:30EAN

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani, Boulevard. 'Desequilibrados', magia Aitzol parkean (Usandizaga institutua-Amara). %100 Hodei, magoa Alfontso XIII plazan (Antigua). Ibai Berriak orkestra, dantzaldia Easo plazan. Julen, kantautorea Boulevardeko kioskoan.

23:30-02:30

Kursaal gune zabala. DJ gaua Kursaaaleko Erizainen plazan.

23:30 Leinup DJ-a**01:00** Aitana Grandes DJ-a**23:45EAN**

Bulego, pop musika Saguesen.



DELTA
PAPELERIA

Eskolara itzulerara %15eko deskontua
1Railaren letik - 15era

Ordutegi berria: 09:00etatik 19:30etara.
Andrestegi, 2 behea - ANTIGUA - Donostia
943-22 38 98 - 663875255
deltapapeleriass@gmail.com

deltapapeleriass



**BAZKIDETU ZAITEZ,
AURREZTU EZAZU!**

Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak kide izanik, prestakuntzarako langile eta ordainsari bakoitzeko 20 €-ak ordaintzetik salbuetsita egongo zara.

www.hostelcriagipuzkoa.com - 943 31 60 40
Almoriza kalea, 2 - 20018 Donostia



ABUZTUAK 17, OSTEGUNA

EGUN OSOAN ZEHAZ

Zurriola Street Food Kursaaileko Erizainen plazan.

11:00-14:00/17:00-21:30:

Eskulangintza azoka Gabiltza artisau elkartearen eskutik, Boulevardean.

11:00-14:00/17:00-21:30

Baby mundua tailerraren eskutik: Ponpoizko giltzatakoak (0-99) Gipuzkoa plazan.

12:00ETAN

Aquariumeko Itsas Film festibala. 'El Olvido del Mar'. Sarrera doan, eserlekuak bete arte.

13:00-14:30

Two Rubias DJ-ak Kursaaileko Erizainen plazan.

15:30-20:30

Puzgarriak Katalunia plazan (Gros).

16:00ETAN

Aste Nagusiko XXVIII. esku pilota txapelketa: finalak Trinitate plazan.

17:00-18:30

Zirku tailerra, Zirkugintzaren eskutik Katalunia plazan (Gros).

17:00ETAN

Bisita gidatuak kanoetan Urumea ibaian. Plaza mugatuak, izen-emateak online.

Aste Nagusiko VI. arkume menestra lehiaketa Aitzol parkean (Usandizaga institutua- Amara). Trikitilariek girotua.

17:30EAN

XXVIII. Egiako nazioarteko eskubaloi txapelketa.

Emakumezkoa: Egia Eskubaloiko partidak, Egiako kiroldegian.

18:00ETAN

Erraldoiak eta buruhandiak, Antiguu auzoan. Irteera Alfontso XIII. plazatik.

18:30EAN

Musika Hamabostaldia. Tabakalera Dantzan. Vera Tussing "The Palm Of Your Hand" Tabakalerako patioan. Bebes de la Bulla txaranga Erdialdean eta Parte Zaharrean. Pasai txaranga Amara auzoan.

19:00ETAN

75 Antiguako pilota txapelketa. Binaka gizonetzkoa promesa eta elite mailak, Antiguako frontoian.

19:30EAN

XXVIII. Egiako nazioarteko eskubaloi txapelketa.

Gizonetzkoa: Egia Eskubaloiko partidak, Egiako kiroldegian. Zirkugintzak aurkeztuko du Zirkoteke, zirku antzerkia Katalunia plazan (Gros).

Trintxerpeko musika banda 'lumbre' (Gipuzkoa) Boulevardeko kioskoan.



Xabier

Ondo pasa jaiak!

Cuesta Aguirresarobe, S.L.

Abokatua / Higiezinaren kudeatzailea / Finken administrazioa

Mandasko Dukea, 38, behea - Donostia - Tel.: 943-27 03 27 - xabier@xabiercuesta.com

20:00ETAN

Eskola dantza taldea, folklorea
Konstituzio plazan.

20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a Kurasaaleko
Erizainen plazan.

21:00ETAN

Musika Hamabostaldia. Tabakalera
Dantzan. Vera Tssing 'The Palm
Of Your Hand' Tabakalerako patioan.

22:45EAN

Su artifizialen nazioarteko 58.
Lehiaketa Kontxako badian.
Pirotecnia Valenciana (Valentzia).

23:30EAN

Zezensuzkoen entzierroa.
Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani,
Boulevard.

Bengoa DJ-a, Aitzol parkean
(Usandizaga institutoa-Amara).
Fan & Go, erromeria Alfontso XIII
plazan (Antigua).

Stylo orkestra, dantzaldia Easo
plazan.

The Fake Cousin, Rithm & Blues
Boulevardeko kioskoan.

23:30-02:30

Kurasaal gune zabala. DJ gaua
Kurasaaleko Erizainen plazan.

23:30 Fita DJ-a

01:00 Blessive DJ-a

23:45EAN

Danny Ocean, pop latinoa Saguesen.

ABUZTUAK 18, OSTIRALA**EGUN OSOAN ZEHar**

Zurriola Street Food Kurasaaleko
Erizainen plazan.

11:00-14:00/17:00-21:30:

Eskulangintza azoka Gabiltza artisau
elkartearen eskutik, Boulevardean.

11:00-14:00/17:00-21:30

Hazi ta Hezi tailerraren eskutik:
Bakero birziklatuekin poltsoak (0-99)
Zurriola pasealekuan.

12:00ETAN

Aquariumeko Itsas Film festibala.
Aritz Aranbururen surfistaren eguna.
Sarrera doan, eserlekuak bete arte.
Musika Hamabostaldia. Tabakalera
Dantzan. Poliana Lima 'Las cosas
en la distancia' Tabakalerako plazan.

12:30EAN

Bertsolariak Easo plazan.
Parte-hartzaileak: Beñat Gaztelumendi,
Izarne Zelaia, Aitor Mendiluze eta
Nerea Elustondo. Gai-jartzailea:
Uxune Areizaga.

13:00-14:30

Two Rubias DJ-ak Kurasaaleko
Erizainen plazan.

15:00-18:00

Aste Nagusiko XXVII. arrantza
lehiaketa, Miguel Angel Fernandez
oroimenez, Urumea ibaian.

15:30-20:30

Puzgarriak Katalunia plazan (Gros).

16:00-18:00

Jolas parke mistoa: arku-tiroa,
bola-jaurtigailua, ludoteka, saskiak,
paleta-jokoa... Katalunia plazan (Gros).
Haurrentzako eskrima Igor Otaegi
eskrima maisuaren eskutik,
Katalunia plazan (Gros).

18:00ETAN

XXVIII. Egiako nazioarteko eskubaloi
txapelketa.
Gizonezkoa: Limoges Handball
(Frantzia) - Helvetia Anaitasuna,
Egiako kiroldegian.
Bisita gidatuak kanoetan Urumea
ibaian. Plaza mugatuak, izen-emateak
online.
'Familian sukaldatzen' II. gastronomia
lehiaketa Gipuzkoa plazan. Trikitilariak
girotua.
Erraldoiak eta buruhandiak Erdialdean.
Abuztuaren 31 kaletik abiatuko dira.

18:30EAN

Gauerditxaranga Gros auzoan.
Tximeletak txaranga Alde Zaharrean.

19:00ETAN

Musika Hamabostaldia. Tabakalera
Dantzan. Dani Hernandez
'Cordoba Drone' ibiltaria. Hasiera:
Tabakalerako plazaren eskaileran.

19:30EAN

Musika Hamabostaldia. Tabakalera
Dantzan. Poliana Lima 'Las cosas
en la distancia' Tabakalerako plazan.
'Dale Ramon', antzerkia Katalunia
plazan (Gros).
Fustiñanako eta ibaforadako
musika bandak (Nafarroa)
Boulevardeko kioskoan.

ALTZA
URUMEA EUSKALTEGIA

Ondo pasa jaiak!



Donostia erdialdean, ☎ 943 46 46 55
Prim kalea, 9 (Gernika pasealekua)
20006 Donostia-San Sebastián
info@urumeaeuskaltegia.eus

www.urumeaeuskaltegia.eus



Altzan, ☎ 943 40 03 16
Txapiñenea kalea, 1
20017 Donostia-San Sebastián
altza@urumeaeuskaltegia.eus



ABUZTUAK 19, LARUNBATA

EGUN OSOAN ZEHAR

Zurriola Street Food Kursaaletako Erizainen plazan.

11:00–14:00/17:00–21:30:

Eskulangintza azoka Gabiltza artisau elkartearen eskutik, Boulevardean.

10:00–20:00

Artisau topaketa San Martin merkatuan.

10:30EAN

Piraguismoa. Zeharkaldia Paseo Berritik eta Zurriolatik Pasaiaiko portuko sarreraino. Irteera eta helmuga Nautikoko ontzirekuan.

11:00ETAN

Aaste Nagusiko XVI. marmitako lehiaketa Gipuzkoa plazan. Trikitilariak girotua.

11:00–14:00/17:00–21:30

Baby mundua tailerraren eskutik: Fieltro eta oihalezko diruzorroak (10 urtetik gora) Zurriola pasealekuan.

11:30–14:30/15:30–20:30

Puzgarriak Katalunia plazan (Gros).

12:00ETAN

Aquariumeko Itsas Film festibala. 'Donostiako Aquariumeko barrunbeak'. Sarrera doan, eserlekuak bete arte.

19:30–21:00

Sardina jana Easo plazan.

20:00ETAN

Musika Hamabostaldia. Mahler: 8. Sinfonia "Milakoena" Kursaaletako auditorioan.

XXVIII. Egiako nazioarteko eskubaloi txapelketa. Gizonezkoa:

C.D. Bidasoa – Logroño La Rioja

Egiako kiroldegian.

Gaztedi dantzari taldea, folklorea

Konstituzio plazan.

20:30–22:00

Artie Escolar DJ-a Kursaaletako Erizainen plazan.

22:45EAN

Su artifizialen nazioarteko 58.

Lehiaketa Kontxako badian.

Scarsella Fireworks (Italia).

23:30EAN

Zezensuzkoen entzierroa.

Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani, Boulevard.

Radio Rebelde Covers, pop-rock musika Aitzol parkean (Usandizaga institutua-Amara).

Impacto Vudu, pop rock musika

Alfontso XIII plazan (Antigua).

Tsunami orkestra, dantzal dia Easo plazan.

Haize Arrosa, elektro-pop -triki

musika Boulevardeko kioskoan.

23:30–02:30

Kursaal gune zabala. DJ gaua Kursaaletako Erizainen plazan.

23:30 Ander DJ-a

01:00 Txurru DJ-a

23:45EAN

Huntza, triki-pop musika Saguesen.

13:00-14:30

Two Rubias DJ-ak Kursaaileko Erizainen plazan.

15:00ETAN

Gurutzaldiko belaontzien estropada badian, Paseo Berrian eta Zurriolan zehar. Irteera: Mollaberria.

16:00-18:00

Jolas parke tradizionala: Bolak irentsi, Igela, Futbolina, Partxis Erraldoia, Jenga, Igo bola, Dianak, Eraikuntzak, Billar japoniarra... Katalunia plazan (Gros). Haurrentzako eskrima Igor Otaegi eskrima maisuaren eskutik, Katalunia plazan (Gros).

16:30-18:15

Batukada eguna: perkusio eta forro dantza brasildarraren tailerrak, Antiguako frontoian.

17:30EAN

XXVIII. Egiako nazioarteko eskubaloi txapelketa. Gizonezkoa: Hirugarren eta Laugarren postua Egiako kiroldegian.

18:00ETAN

Erraldoiak eta buruhandiak, Alde Zaharrean eta Erdialdean. Abuztuaren 31kaletik abiatuko dira.

18:15-19:00

Batukada eguna: batukaden kontzentrazioa Clara Campoamor plazan.

18:30-20:00

Pedaloen karrusela-Ramon Barea saria Urumea ibaian. Plaza mugatuak, izen emateak online.

18:30EAN

Pasai txaranga Erdialdean.

19:00-21:45

Batukada eguna: Batukaden desfilea. Ibilbidea: Clara Campoamor pza, Bigarren mendeurrenaren pza, Antiguako frontoia.

19:00ETAN

Donostiako Aste Nagusiko emakumezkoen esku pilota Master Cup. Udako Torneo 'Laboral Kutxa' txapelketako kanporaketa, Atano pilotalekuan.

19:30EAN

XXVIII. Egiako nazioarteko eskubaloi txapelketa. Gizonezkoa: Txapelketaren Final Handia Egiako kiroldegian. 'Txaplin', umorezko ikuskizuna Katalunia plazan (Gros). Magallongo Ikarte artistiko musikala (Zaragoza) Boulevardeko kioskoan.

20:00ETAN

Agur erraldoia. Erraldoiak eta buruhandien konpartsaren agurra Zuloaga plazan.

20:00-21:00

Agur asteari Konstituzio Plazan La Union Artesanaren laguntzarekin.

23:30EAN

Hamabostaldia. Aintzinako Musika Zikloa. Carlos Mena & Daniel Zapico 'La nouvelle musique' San Telmo museoan. Musika Hamabostaldia. Tabakalera Dantzan. Blanca Arrieta 'Eso' Tabakalera.

20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a Kursaaileko Erizainen plazan.

22:45EAN

Su artifizialak. Aamaierako ikuskizun piromusikala, Pirotecnia Vulcanoren (Madril) eskutik, Kontxako badian.

23:30EAN

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani, Boulevard. Joselontxos txaranga Parte Zaharrean.

23:30-01:00

Batukada eguna: Brasilgo musika kontzertua Antiguako frontoian.

23:30-03:30

Kursaal gune zabala. DJ gaua Kursaaileko Erizainen plazan. **23:30** Sagar DJ-a **01:00** Josu Rodriguez DJ-a

23:45EAN

Antonio Carmona, flamenko-fusio musika Saguesen.

HARRRESI

ETXE-AGENTZIA INMOBILIARIA

Alde zaharreko etxe agentzia

Enbeltran, 2, behea - 20003 Donostia

Zugandik hurbil
Ondo pasa jaiak!

ASTE NAGUSIA 2023

Piratak





Hamaika aldiz, eskerrik asko

Ezkila kapitainarekin batera, ongietorria ematen dio urtero Mattik Aste Nagusi Piratari. Eragileak omentzeko sortu zuten pertsonaia hori, eta urtero eragile desberdin batek gorpuzten du Matti. Iaz, Euskal Herriko Bilgune Feminista izan zen, eta aurten, Zaporeak elkarteak hartuko du erreleboa.

Martin eta Maddi izenak uztartzen zituen izenik, proposena zelakoan zeuden Donostiako Piratak, 2012an Matti sortu zutenean. Sexu eta genero zehatzik ez delako existitzen beraien hiztegiaren. Ez da ez Martin, ez Maddi; Matti da, eta urtero eragile bat omentzeko asmoz sortu zuten Pirateak. Ezkila kapitainari abenturan lagun-

tzera iritsi zen, eta geroztik, elkarrekin bota izan ohi dute txupinazoa Donostiako Aste Nagusi Piratari hasiera emateko.

Hamaika urte pasa dira Mattik Donostiako kaia lehen aldiz zapaldu zuenetik, eta geroztik, hamar izan dira bere azalean jarri diren eragileak. Martuteneko auzo elkarteak izan zen lehena, 2012an. Aurreko urteko azaroan uholde handiak jasan zituen auzoak eta dozenaka boluntario piratek aboratu zuten Martutene, kaleak garbitzen lagundu nahian. Azaroan eman zen «elkartasun uholde» hori 2012ko abuztuan irudikatu zen, Mattiren bidez, auzoari ahotsa emateko.

2013an, Kaleratzeak Stop etxe kaleratzeen aurkako kolektiboaren txanda izan zen. Mugimendu eta ekintza asko egin ziren horren harira, eta piraten baloreekin bat



egiten zutela ohartzean, euren lekua eman zitzaien Aste Nagusi Piratan. Etxe kaleratzea pairatu zutenen ahotsa izan zen urte hartan Mattirena, erantzuleak eza-gutaraziz eta elkartasun lezio handi bat emanez. Abortatzeko eskubidearen aldeko mugimendua izan zen hurrena, 2014an. Emakumeek beren askatasun eta gorputzaren gainean erabakitzearen aldeko borroka da euren helburua. Gallardon legearen onarpena eztabaidagai zegoen orduan, eta abortuaren aurkako mehatxu handi bat zen hura; izan ere, bi baldintzapean abortatzeko eskubidea baino ez zuen ematen legeak: bortxaketa batek eragindako haurdunaldia baltz, edo bizitza arrisku handian balego. Urte berezia izan zen hori piratentzat; izan ere, Sardinera Kofradia Feministak bete zuen Ezkila kapitainaren rola eta inoiz baino estuago heldu ziren eskutik Matti eta piraten kapitaina.



2015ean, IRUTXULOKO HITZAK izan zuen txupinazoa botatzeko ohorea. Hamar urte betetzen genituen orduan, eta «euskararen alde arduraz lan egiteagatik» egin zuten proposamena. Urte batzuk badira, dagoeneko, IRUTXULOKO HITZA Piraten pausoen atzetik dabilela, orrialdeak eta orrialdeak beteaz Aste Nagusi Pirataz hitz egiten; euskaraz aboratu behar delako Donostia, eta hor ere, IRUTXULOKO HITZA bidelagun izan dutelako Piratek.

Errefuxiatuei pasa genien lekukoa, 2016an. Mattiren bitartez eman zitzaion ikusgarritasuna gaiari, elkartasuna ezinbesteko balore bat baita mugimenduarentzat. Gaur egun, oraindik ere, ez dira gutxi Mediterraneoa (eta agintarien begiradapean, gainera) gertatzen diren ezbeharrak. «Babesleku izango den kai segurua» eskaini zieten piratek errefuxiatuei, bizirautea ez delako delitua.

2017an Sara eta Izar Majarenas ama-alaben txanda izan zen. Albiste lazarri batekin hasi zuen urtea Euskal Herriak: urtarrilean, Majarenasen bikotekide ohiak

Izar sastatu zuen, hil nahian. Madrilgo espetxean zegoen Majarenas orduan. Piratek babesla eman nahian proposatu zieten Mattiren azalean sartzea, baina Majarenasi komunikatzeko bideak oso zorrotzak izan zirenez, bere ahizpa Haizeak bota zuen txupinazoa, ahizparen eta ilobaren izenean. Urruntze politika deitoratzeaz gain, kalean egoteko zuten eskubidea aldarrikatu zuten honela.



2018an, Altsasuko Gurasoak. Altsasun 2016an izandako liskar eta muntaia mediatikoaren harira, hainbat gazte espetxeratu zituen Espainiako justiziak. Egoerari aurre egiteko, elkartasun keinu bat egin nahi izan zuten Piratek, oinarrizko giza eskubideen babesla aldarrikatuz. Altsasuko gurasoek bota zuten suzeria, eragileen arteko elkarlana irudikatuz, horren garrantzia azpimarratuz eta gizarte aske bat eraikitze indarrak batuz. 2019an, Donostiako gaztetxeetako ordezkariak hartu zuten lekukoa. Donostian mugimendu autogestionatuak indarra izan du urte askotan zehar eta, gaztetxeek hirian betetzen duten funtzio soziala nabarmendu



nahian, Donostiako lau gaztetxeetako ordezkariak izan ziren Matti: Letaman (Intxaurren), Txantxarreka (Antigua), Kijera (Parte Zaharra) eta Anörgako gaztetxea.

2020 eta 2021 urteak latzak izan ziren munduaren-

tzat. 2020ko martxoan ezarri zen alarma egoera Espainiako Estatuan, COVID-19aren pandemia zela medio, eta eragin handia izan zuen horrek mundu guztian zehar. Piratek ere sufritu zituzten pandemiaren ondorioak; izan ere, koronabirusaren eraginez, ezin izan zen Aste Nagusia bere horretan ospatu. Hala ere, keinu txiki bat egin nahi izan zuten, bete beharreko neurri guztiak betetz, eta Pirata Setioa izenez ezagutarazi zituzten ez-jaiak ospatu zituzten. Jasandako egoera latza zela medio, ostalariei egin zieten piratek aitortza.

Merkatari txikiak izan ziren Matti 2020an, Aste Nagusia antolatzekeo tabernarien eskutik jasotzen zuten babes hori itzultzeko asmoz. Kabotajea izan zen hurrengo urteko ez-jaien izena. Pandemiaren egoerak ez zuten utzi 2021ean, oraindik ere, Aste Nagusia ospatzen. Naizen Adingabe Transexualen Familien elkar-atea izan zen urte horretan Matti, eta elkarteak egiten duen lana omentzeaz gain, hitzaldi bat antolatu zuten, beraiei hitza emanez. Trinitate plazan ospatu ziren Pirata Setioa eta Kabotajea, piraten hastapenetako tokira itzuliz.

Azkenik, 2022an, Euskal Herriko Bilgune Feminista. Donostiako Piratek eta Bilguneak hogeitau urte bete zituzten iaz. Feminismoa lehen lerrora ekartzea badago

piraten baloreen artean, eta hala erakutsi zuten, Mattiren aitortza Bilgune Feministari emanez. Urteurrena konpartitzeaz gain, helburu bera dute biek: eraldaketa soziala sustatzea gizartearen. Erasoaren aurkako protokoloa martxan jarri izan du urteetan Bilguneak, udalak zituene hutsuneak betetz, eta, hala, jai-gunea edonor aske ibiltzeko espazio bihurtuz.

Zaporeak elkarteak hartu du aurten Mattiren azalean jartzeko konpromisoa. 2012an Intxaurren sortua, elkartasuna eta gastronomia uztartzen dituzten proiektuak gauzatzen dituzte. Greziako kanpalekuetan laguntzen hasi aurretik, Etiopiako Wukro bailaran egin

Zaporeak: «Normalean berri txarrak besterik ez daude gure inguruan, eta Matti izatea oso berri ona da»

zuten lehen esku hartzea, Intxaurrendotik Wukroa egitasmoaren baitan. Erakusten duten etengabeko elkartasuna omentzeko asmoz, beraiei eskaini zaie aurten Matti izateko ohorea, eta «ilusio handiz» eta «harrotasunez» hartu du elkarteak proposamena: «Normalean berri txarrak besterik ez daude gure inguruan, eta Matti izatea oso berri ona da. Aste Nagusia jai bat da eta elkartasuna jaiarekin lotzea oso polita iruditzen zaigu». Ziur daude aukera honek ikusgarritasuna emango diola elkartearen lanari; izan ere, diotenez, jende heldua erakartzen dute, gehienbat, eta gazteei gerturatzeko aitzakia ona dela uste dute. Pozik hartu du elkarteak Mattiri zapore pixka bat jartzeko erronka.



BIKABI
ARTEKARITZA, S.L.
CORREDURIA DE SEGUROS



Ondo pasa jaiak!

GUSTATUKO AL LITZAIZUKE ZURE ASEGURUEN BALDINTZAK AZTERTZEA?

DONOSTIA: 943-47 47 19

BILBO: 944-23 96 34

email: bikabi@bikabi.eus



GORA DONOSTIAKO PIRATAK!!!

JAI HERRIKOIEN ALDE!!!

www.doka.eus

IRUTXULO HITZA

Donostiako auzo eta herrietako
JAIEN ARGAZKI GALERIAK
Irutxulo.hitza.eus–en ikusgai!

Piraten egitaraua



ABUZTUAK 12, LARUNBATA

16:00ETAN

Martxa periferikoa Intxaurrendotik hasita (Txaparrere pasealekua, Ategorrieta hiribidea, Ategorrietako galtzada zaharra, Nafarroa Hiribidea, Zurriola, Kursaal)

17:00ETAN

Pretxupinazoa
Kursaaletik hasita.

19:30EAN

Txupina Flamenkan.

23:05EAN

Kontzertua Flamenkan:
Irtzar erromeria.

TRINITATE PLAZA

20:00ETAN

Afariak Trinitate plazan.

23:05EAN

Kontzertuak: Ginger eta Rukula

ABUZTUAK 13, IGANDEA

INTXAURRONDO

12:00ETAN

Bernart Etxepare plazaren apainketa.
Bertako edarien dastaketa,
Flamenkan.

14:00ETAN

Traganarruen bazkaria, Bernart
Etxepare plazan (Intxaurrendondo).

17:00ETAN

Estankea abordatu, Bernart
Etxepare plazan (Intxaurrendondo).

19:00ETAN

Playback txapelketa Lastan.

20:00ETAN

Kofradien arteko jolasak Flamenkan.

23:05EAN

Kontzertuak Flamenkan:
Mugan eta Ibil Bedi.

TRINITATE PLAZA

20:00ETAN

Afariak Trinitate plazan.

23:05EAN

Kontzertua: Physis.



LAIA
ABOKATUAK

Ondo pasa jaiak !

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30
Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia



**Ondo pasa
jaiak!**

Jose txo Erregezaintza 4,
DONOSTIA
Irurtia Balerdi - Tel.: 943-21 49 89



ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

09:30EAN

Baltsen muntaketa Kaian.

14:00ETAN

Piraton bazkari herrikoia Flamenkan.

17:00ETAN

Txupinazoa eta abordatze hasiera Kaian.

18:00ETAN

Kalejira (Kontxa pasealekua, Miramar, Andia, Hernani, Alderdi Eder, Nautikoa, Kaimingaintxo).

20:00ETAN

Kontzertua Flamenkan: Esne Beltza.

00:30EAN

Kontzertua Flamenkan: Nøgen.


TRINITATE PLAZA

21:30EAN

Bertso Saioa.

23:45EAN

Kontzertua: Indabe.



**IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK**

Ondo pasa jaiak!

Mundaiz bidea, 10
2. solairua - 24. bulegoa
Tel.: 943-42 41 21
20012 DONOSTIA
www.ipuru.com



ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

GROS

10:30EAN

Umeentzako jolasak.

12:30EAN

Trikipoteoa.

14:30EAN

Bazkaria, Txofre plazan.

17:30EAN

Zutik elektrotzaranga, Txofre plazatik hasita.

12:00ETAN

Sardiñeren dantza eta salsa-bachata-queer ibilaldia tabernetan zehar Lastatik hasita.

14:30EAN

Sardiñeren bazkaria Lastan (Espazio transfeminista).

16:00ETAN

Koadrilen jolasak San Telmoko plazan.

18:30EAN

Elektropottotte elektrotzaranga Lastatik hasita, Parte Zaharretik.

23:05EAN

Kontzertuak Flamenkan: Olaia Intziarte eta Sua.

TRINITATE PLAZA

22:00ETAN

Kontzertuak: Bi Zaldi eta Irteera.

ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA

12:00ETAN

Kantujira Flamenkan.

14:30EAN

Bazkari Pirata Flamenkan.

17:00ETAN

Distopia elektrotzaranga Flamenkatik hasita.

18:00ETAN

Muxikoak Flamenkan.

20:00ETAN

Karaokea Lastan.

23:05EAN

Kontzertuak Flamenkan: La Excavadora eta Delirium Tremens.

TRINITATE PLAZA

20:00ETAN

Afariak Trinitate plazan.

23:05EAN

Kontzertuak: Muare eta Erroka.

Euskaraz hitz egiten badakizu?

Ondo pasa jaiak!

 **hitzez**
euskaltegia

GROS-en
ikas ezazu



ABUZTUAK 18, OSTIRALA

11:00ETAN

Haurrentzako hockey tailerra
Flamenkan.

14:00ETAN

Gazte Bazkaria Flamenkan.

16:00ETAN

Kalejira Txita DJ-arekin Flamenkatik
hasita, Parte Zaharretik zehar.

17:30ETAN

Jai Tematikoa Lastan.

19:00ETAN

Erraldoiak Flamenkan.

19:50ETAN

Ubarroien danborrada Grosen,
Txofre plazan hasita.

20:00ETAN

Enkartelada Flamenkatik hasita.

23:05ETAN

Kontzertuak Flamenkan: Ezpalak eta
Niña Coyote & Chico Tornado.

TRINITATE PLAZA

17:00ETAN

Bertso musikatuak.

20:00ETAN

Afariak Trinitate plazan.

23:05ETAN

Kontzertua: Alarma Morea.

ABUZTUAK 17, OSTEGUNA

11:00ETAN

Haurren egunaren hasiera Flamenkan.

16:00ETAN

Abordatze txikia! Kaian.

17:00ETAN

Mojito lehiaketa Lastan.

17:30ETAN

Bizi-Festa Txantzarrekako
Gaztetxetik hasita.

18:00ETAN

Kontzertu kubatarra Lastan.

19:30ETAN

Zumba Lastan.

23:05ETAN

Kontzertuak Flamenkan: Janus Lester
eta Kilimak.

TRINITATE PLAZA

20:00ETAN

Afariak Trinitate plazan.

23:05ETAN

Kontzertuak: Andoni Ollokiegi eta
Quinto Contenedor.

NAGOI
SUPERMERTATUA



Ondo pasa jaietan!

Sukia kalea, 1 · Antigua · 943-31 51 27 · Donostia



ABUZTUAK 19, LARUNBATA

10:00ETAN

Bizikrosa Flamenkan.
Artisau azoka Lastan.

14:00ETAN

Xibaroen bazkari herrikoia Flamenkan.

17:30EAN

Kontzertua Flamenkan.

23:05EAN

Kontzertuak Flamenkan: Herenegun eta XSakara.

TRINITATE PLAZA

16:00ETAN

Mus txapelketa.

20:00ETAN

Afariak Trinitate plazan.

23:05EAN

Kontzertua: La Jodedera.

ABUZTUAK 20, IGANDEA

03:00ETAN

Desmuntatzea, Flamenkan.

17:00ETAN

Irrikitaldia, Bulebarretik hasia eta, ondoren, kalejira.

Triku Harri
taberna *Sj*atetxea

Ondo pasa jaiak!

Matia Kalea 35, Antigua
www.trikuharrijatetxea.com

ORDIZIA
TABERNA

San Lorenzo kalea, 6
20003-Alde Zaharra-Donostia
tel.:943-42 24 24
www.ordiziataberna.com

Ondo pasa jaiak!

OGITARTEKOAK ETA PINTXO BEROAK

Festetan ere aske! Indarkeria sexistarik ez!

Eraso sexisten aurkako
informazio eta laguntza gunea



Bulebarrean

Abuztuaren 12tik 19ra
Eguerdiko 13:00etatik
Goizeko 10:00etara
etenik gabe.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

ezezetzda.eus

#noesno
#festetanereaske